

2017-05-30eko OHIKO UDALBATZA

Irurako udaletxean, 2017ko maiatzaren 30ean, arratsaldeko 19:30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da ohiko osoko bilkura egiteko. Mahaiburua Ana Jesús Leunda Gurruchaga izan da, udaleko alkate-lehendakaria, eta zinegotzi hauek agertu dira gaiak aztertzeko:

-Azaldu diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: Jesus Maria Alonso Insausti, Jose Ramon Epelde Irizar, Maria Cristina Santos San Sebastian eta Marta Castrillo Iturralde.

-Azaldu ez diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: inor ez.

-Azaldu diren EH BILDU udal-taldeko zinegotziak: Ainhoa Ugalde Gorostiaga, Olaia Nieto Legarra, Mikel Gotzon Iturbe Saizar eta Jose Ignacio Imaz Bengoechea.

-Azaldu ez diren BILDU udal-taldeko zinegotziak: inor ez.

Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin Udaleko idazkari kontu-hartzaileak egin ditu idazkari lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta alkatearen baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egin daitekeela, bertara agertu baita gutxieneko partaide-kopurua, Toki Erregimeneko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araudi Juridikoaren Erregelamendua onartzen duenak, agindutakoa.

LEHENENGO GAIA

AURREKO AKTAK ONARTZEA (2017-04-25).

2017ko apirilaren 25eko aktaren zirriborroa aurkeztu da.
Akta aho batez onartu da.

BIGARREN GAIA

ALKATETZAREN DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2017/68 DEKRETUTIK 2017/89 DEKRETURA ARTE.

Alkateak 2017/68 dekretutik 2017/79 dekretura artekoen berri eman dio Udalbatzari.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

HIRUGARREN GAIA

UDALBATZEN BILERAK GRABATZEKO ERABAKIA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Irurako Udalean polemika egon izan da udalaren osoko bilkurak grabatzeko aukerari buruz eta komenigarritasunari buruz, administratzeko eraginkorragoa eta gardenagoa izateko. Hori ikusita:

1.- Zinegotziek edo publikoak udalaren osoko bilkurak grabatzeko aukera.

Hasteko, adierazi behar dut, tokiko araubidearen oinarritzko legediaren eta batez ere Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2006 Legearen 30.1. artikulua ezarritakoaren arabera, udalaren osoko bilkurak publikoak direla.

Bigarrenez, azpimarratu behar dugu Auzitegi Nagusiak 2015eko ekainaren 24an emandako Ebazpenak hau dioela: "Zinegotziek, ikusleek eta komunikabideek ez dute aurretiazko baimenik behar udalaren osoko bilkura grabatzeko". Ildo horretatik, ebazpenak adierazten du, saioak publikoak direnez, bertaraten diren komunikabideek, zinegotziek eta ikusleek horiek graba ditzaketela, udalbatzaren ordena normala aztoratzen ez den bitartean eta alkatetzak udalbatzaren saioak zuzentzeko dituen eskumenei kalterik egin gabe. Zehazki, lehenatasuna ematen zaio egiazko informazioa komunikatzeko eta jasotzeko oinarritzko eskubideari, Konstituzioaren 20.1.d) artikulua ezarritakoa, bertako 18. artikulua ezarritako mugen barnean, betiere: ohorea, intimitate pertsonala eta

En este Ayuntamiento de Irura, se viene manteniendo la polémica de si se puede grabar o no los plenos municipales, además de la conveniencia de grabarlos, por motivos de eficacia administrativa y transparencia. Ante ello:

1.-Posibilidad de que los concejales o el público puedan grabar los plenos municipales.

En primer lugar señalar que de acuerdo con la legislación básica de régimen local y en especial, lo señalado en el art. 30.1 de la Ley 2/2016, de Instituciones Locales en Euskadi, las sesiones del pleno del ayuntamiento son públicas.

En segundo lugar debemos de señalar que de acuerdo con la STS de 24 de junio de 2015: "Grabar el pleno municipal por concejales, público y medios de comunicación, no precisa de autorización previa". En este sentido declara que los medios de comunicación, concejales y público asistente pueden grabar las sesiones, por el carácter público de la misma, siempre que no se altere el orden normal del pleno y ello sin perjuicio de las correspondientes potestades de la Alcaldía de presidir las sesiones del Pleno. En concreto, se antepone el derecho fundamental a comunicar y recibir información veraz, art. 20,1,d) de la Constitución sin perjuicio de los límites que se señalan en el art. 18 de la misma: se garantiza el derecho al honor, a la intimidad personal y familiar y a propia imagen.

familiarra eta norberaren irudia mantentzeko eskubidea bermatzea.

Ildo horretan, logikoa denez, Udalak berak ere graba ditzake saioak, eta sustatu dezake bilerak grabatzea eta, gero, herritarrek eskura ditzaketen plataformetan argitaratzea, egungo zein etorkizuneko baliabide teknologiko guztiez baliatuz.

Horrela, udal askotan grabatzen dituzte osoko bilkurak, Udalak berak edo komunikabideek, irudiz eta zuzenean, eta hiritar guztien eskura jartzen dituzte ondoren.

2.- Grabazioa aktaren orde ez edo horren osagarri.

Horri buruz, Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 18. artikulua ezarritakoa aipatu behar dugu:

“Kide anitzeko organoak egindako saioak graba daitezke. Grabazioaren fitxategia saioen aktari erants dakioko, idazkariak igorritako ziurtagiriarekin batera, fitxategia osatua eta egiazkoa dela adieraziz. Halaber, saioan erabilitako beste edozein euskarri elektronikoko agiri ere erants daitezke, eta ez da beharrezkoa izango grabazioan eztabaiden puntu nagusiak jasotzea.”

3.-Akten eta dokumentazio osagarriaren publizitatea.

Horri dagokionez, adierazi behar dugu Tokiko Araubidearen Oinarri buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.3 artikulua honako hau ezartzen

En este sentido lógicamente también el propio Ayuntamiento puede grabar las sesiones y puede promover la grabación y posterior publicación de las reuniones en plataformas accesibles a la ciudadanía, aprovechando todos los recursos tecnológicos, actuales o futuros.

En este sentido son muchos los ayuntamientos cuyos plenos son grabados en imagen, directamente por el Ayuntamiento o por los medios de comunicación y en directo y luego puestos a disposición de la ciudadanía, en general.

2.- La grabación como sustitutivo o acompañamiento al acta.

En este sentido debemos de señalar lo señalado en el art. 18 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público:

“Podrán grabarse las sesiones que celebre el órgano colegiado. El fichero resultante de la grabación, junto con la certificación expedida por el Secretario de la autenticidad e integridad del mismo y cuantos documentos en soporte electrónico se utilizase como documentos de la sesión, podrán acompañar al acta de las sesiones, sin necesidad de hacer constar en ella los puntos principales de las deliberaciones.”

3.-Publicidad de las actas y de la documentación complementaria.

En este sentido debemos de señalar que de acuerdo con lo dispuesto en el art. 70.3 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, de Bases del Régimen Local:

duela:

“Herritar guztiek eskubidea dute tokiko erakundeen erabaki guztien eta horien aurrekarien kopiak eta egiaztatze-ziurtagiriak edukitzeko”.

Bestalde, 2/2016 Legearen 52. artikulua bete behar hauek xedatzen ditu, gutxienezko gardentasun-bete beharren artean:

“Halaber, gai-zerrendak eta beharrezko organoetan (udalbatza) hartzen diren erabaki guztiak jakinaraziko dira”.

Horrez gain eta kontuan hartu da Udalak ez duela Udal-araudi Organikorik.

Dagokion txostena ere ikusi da.

Hori dela eta, udalbatzak aho batez erabaki du honakoa:

ERABAKIA

1.- Udalbatzaren saioak grabatzea, dituen baliabide teknologikoak kontuan izanda (ahotsa, irudia ...).

Saioen aktari erantsiko zaio grabatutako fitxategia, idazkariak egindako ziurtagiriarekin batera, fitxategia osoa eta egiazkoa dela adieraziz. Halaber, saioan erabilitako beste edozein euskarri elektronikotan jasotako agiriak ere erantsiko zaizkio aktari, eta ez da beharrezkoa izango aktan eztabaiden puntu nagusiak jasotzea.

Gainera, saioaren akta eta

“Todos los ciudadanos tienen derecho a obtener copias y certificaciones acreditativas de todos los acuerdos de las corporaciones locales y sus antecedentes”.

Por otro lado el art. 52 de la Ley 2/2016 citada, señala dentro de las obligaciones mínimas de transparencia las siguientes:

“Así mismo se difundirán los órdenes del día y los acuerdos que se adopten en cada uno de los órganos necesarios (pleno).

Así mismo y teniendo en cuenta que este Ayuntamiento carece del Reglamento Orgánico municipal.

Visto el informe correspondiente.

Ante ello, la Corporación acuerda por unanimidad de los presentes, lo siguiente:

ACUERDO

1.- Proceder a grabar las sesiones que celebre el pleno de este Ayuntamiento y en función de sus recursos tecnológicos (voz, imagen...).

El fichero resultante de la grabación, junto con la certificación expedida por el Secretario de la autenticidad e integridad del mismo y cuantos documentos en soporte electrónico se utilizasen como documento de la sesión, acompañarán al acta de la sesión, sin necesidad de hacer constar en ella los puntos principales de las deliberaciones.

Así mismo el acta de la sesión

aipatutako grabazioa erakundearen junto con la grabación citada se
gardentasun-atarian argitaratuko dira. publicará en el portal de transparencia
de la entidad.

LAUGARREN GAIA

2018RAKO IRURAKO UDALERRIKO TOKIAN TOKIKO JAIA IZENDATZEA.

2017ko maiatzaren 2ko Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Eusko Jaurlaritzako 148/2017 Dekretua, apirilaren 25ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko langileen 2018. urteko jaiegunen egutegia onartzen duena, eta 2.2 artikulua araberak, udalek proposatu behar dute tokiko jaieguna.

Hori ikusita, udalbatzak aho batez hau onartu du:

ERABAKIA

1.- 2018. urteko Irurako tokiko jaieguna irailaren 29a izatea, San Migel eguna, alegia.

2.- Erabakia jakinaraztea Euskal Jaurlaritzako Lan, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari.

BOSGARREN GAIA

2017an TOLOMENDIRI EGIN BEHARREKO EKARPENAREN ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Irurako Udala Tolosaldeko Landa Garapen Elkartearen (Tolomendi) kide da eta 2017ko apirilaren 20an Tolosan egindako urteko Batzar Orokorrean 2017. urterako elkartearen aurrekontua onartu zen eta Irurako Udalari 2.912,91 € ordaintzea dagokio, Elkartearen funtzionamendurako.

Hori ikusita, Udalbatzak aho batez hau erabaki du:

AKORDIOA

1.-2017ko ekarpenaren onartzea eta ordaintzea.

2.-Erabakia interesatuari jakinaraztea.

SEIGARREN GAIA

KONTU-HARTZAILEAREN TXOSTENAK.

2017. EKITALDIAN 1. HIRUHILEKOAN ORDAINTZEKO BATEZ BESTEKO EPEA

"2/2012 Lege Organikoak, apirilaren 27koak, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantzen Iraunkortasunari buruzkoak, ekarri du batez besteko epea kontzeptua (OBE). Kontzeptu honek azaltzen du zor komertziala ordaintzeko erabili den denbora edo izan den atzerapena. Horrela Administrazio Publiko guztiek, gardentasun-ariketa berri batean, ordaintzeko batez besteko epea argitaratu beharko dute. Atxikita dauden orrietan Irurako Udalari 2017ko 1. hiruhileko ordainketa epeari buruzko txostenak jakinarazten dizkizuet.

Horren laburpena hau da:

-1. hiruhileko epea: -8,03 EGUN.

Kopuru negatiboa agertzeak adierazi nahi du jarritako epean baino denbora gutxiagoan ordaintzen direla fakturak. Kopuru positiboak, aldiz, epe luzeagoan ordaintzen direla esan nahi du.

Kasuren batean positibo agertuko balitz ere, lege barruan egongo ginateke 30 egunera iritsi bitartean.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

ZAZPIGARREN GAIA

GALDE-ERREGUAK.- Gai hauek jorratu dituzte:

- a) Alkateak adierazi du gaur bertan iritsi dela errekerimendua Donostiako epaitegitik, udaletxeko balkoian berriro bandera espainola jartzeko, eta jarri egin dela.
- b) Gaur iritsi da ikastola berriaren inaugurazio-ekitaldirako gonbidapena eta zinegotzien artean banatu da.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak 19:40ean eman du amaitutzat bilera. Bertan esandako guztia aktan jaso dut, eta dena EGIAZTATZEN dut, idazkari gisa.

ALKATEA

IDAZKARIA